PRENTSA OHARRA

# Agurainek Altsasu eta Miranda arteko tren zerbitzu berrian maiztasun gehiago, irisgarritasuna bermatzea eta BAT txartelarekiko bateragarritasuna proposatu ditu.

Ibilbideko udalek bilera egin dute gaur Eusko Jaurlaritzako Mugikortasun Jasangarriko sailburuarekin, eta zerbitzua hobetzeko proposamenak egin dituzte.

2026/01/22 Agurain. Altsasu eta Miranda arteko tren zerbitzu berrian maiztasun gehiago, irisgarritasunean hobekuntzak eta BAT txartelarekiko bateragarritasuna proposatu ditu gaur Aguraingo Udalak. Hala jakinarazi dio gaur Eusko Jaurlaritzako Mugikortasun Jasangarriko sailburuari, trenbide-korridoreko udalekin gaur egin duten bileran.

*"Oso ongi baloratzen dugu zerbitzuaren ezarpena. Datu zehatzik ez dugun arren, badakigu asko handitu egin dela orain trenez desplazatzen den jendearen kopurua. Baina premiazkoa eta beharrezkoa da hiru eremu horietan zerbitzua hobetzen jarraitzea: maiztasunak, irisgarritasuna eta BAT txartelarekiko bateragarritasuna"*, nabarmendu du Raul Lopez de Uralde Aguraingo alkateak.

Gauzak horrela, maiztasunak hobetu egin dira, baina bete beharreko ordu-tarte garrantzitsuak daude. Aguraindik Gasteizerako norabidean, adibidez, ez dago trenik goiz-erdian (9:30etik 13:00etara) eta arratsalde-erdian (16:30etik 20:00etara). Gasteiztik itzultzeko ere zerbitzu falta dago arratsaldean (15:15 eta 18:15 artean) eta pertsona batzuk 20:00etan ateratzen dira lanetik baina 21:30ak arte ez dute itzultzeko trenik. Gainera, astegunetan 23:00etan Gasteiztik itzultzeko tren bat dago, asteburuan kentzen dutena, eta gure ustez mantendu egin beharko litzateke, Gasteiztik kanpo bizi garenok aisialdiaz gozatu eta etxera segurtasunez itzuli ahal izateko.

*“Bestetik, gure ustez, zerbitzuak duen arazo larriena trenen eta geltokien irisgarritasun falta da. Premiaz egin beharko lirateke irisgarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren ekintzak, pertsona guztiek izan dezaten garraio publiko horretaz gozatzeko aukera. Une honetan, bagoietara sartzeko eskaileren altuerak eta nasatik trenera arte uzten duten distantzia handiak arriskutsuak dira edonorentzat, baina guztiz eskuraezinak adinekoentzat edo mugikortasun txikia dutenentzat”*, gaineratu du Lopez de Uraldek.

Amaitzeko, nabarmendu du *“aukera ezin hobea da herritarrak garraio publikoaren erabilera masibora erakartzeko, baina horretarako zerbitzu publikoak egokitu eta hobetu behar dira. Ildo horretan, beharrezkoa da, baita ere, BAT txartela trenbide-zerbitzu horrekin bateragarri egitea, eta hala jakinarazi zaio Eusko Jaurlaritzari; horrek lagunduko ligukeelako herritarrak fidelizatzen administrazioek sustatzen dituzten garraio publiko ezberdinekin”*.

alkatea.raul@agurain.eus

# NOTA DE PRENSA

## Agurain plantea más frecuencias, garantizar la accesibilidad y la compatibilidad con la tarjeta BAT en el nuevo servicio de tren entre Altsasu y Miranda.

Los Ayuntamientos del recorrido han mantenido hoy una reunión con la consejera de Movilidad Sostenible del Gobierno Vasco en la que han trasladado sus propuestas con el fin de mejorar el servicio.

2026/01/22 Agurain. El Ayuntamiento de Agurain ha planteado hoy más frecuencias, garantizar la accesibilidad para todas las personas y la compatibilidad con la tarjeta BAT en el nuevo servicio de tren entre Altsasu y Miranda. Así se lo ha trasladado hoy a la Consejera de Movilidad Sostenible del Gobierno Vasco en una reunión que han mantenido con los Ayuntamientos del corredor ferroviario.

*"Valoramos muy positivamente la implantación del servicio. Aunque no tenemos datos concretos sabemos que se ha incrementado el número de gente de se desplaza ahora en tren. Pero es urgente y necesario actuar para seguir mejorando el servicio en esos tres ámbitos: frecuencias, accesibilidad y compatibilidad con la tarjeta BAT"*, ha destacado el alcalde de Agurain, Raul López de Uralde.

Así, aunque las frecuencias han mejorado, existen intervalos horarios importantes que se deberían de cubrir. Desde Agurain en dirección a Gasteiz, por ejemplo, no hay trenes a media mañana (desde las 9:30h hasta casi las 13:00h) y a media tarde (desde las 16:30 hasta las 20:00). Para volver de Gasteiz lo mismo, también hay una falta de servicio por la tarde (entre las 15:15 y 18:15) y hay personas que salen de trabajar a las 20:00 y no tienen tren para volver hasta las 21:30. Además, hay un tren entre semana para volver de Gasteiz a las 23:00 que lo quitan el fin de semana y creemos que se debiera mantener para que las personas que vivimos fuera de Gasteiz podamos disfrutar de su ocio y poder volver a casa con seguridad.

*"Además, existe un problema evidente y, desde nuestro punto de vista, muy grave que es la falta de accesibilidad de trenes y estaciones. Se deberían de realizar con urgencia las actuaciones necesarias para garantizar la accesibilidad para que todas las personas puedan disfrutar de este transporte público. En estos momentos los escalones de acceso a los vagones y la distancia que dejan desde el andén al tren son un riesgo para cualquier persona, pero son absolutamente inaccesibles para personas mayores, o con poca movilidad"*, ha añadido.

Para finalizar, ha destacado que *"el tren es una oportunidad inmejorable para atraer aún más a la ciudadanía hacia un uso masivo del transporte público, pero para ello es necesario adecuar y mejorar los servicios públicos. En este sentido, también es necesario avanzar en la compatibilidad de la tarjeta BAT con este servicio ferroviario para poder así fidelizar a la ciudadanía con los transportes públicos que fomentan las diferentes administraciones".*

**alkatea.raul@agurain.eus**